


LONDRES  
KARTOIZKOA DA  
Unai Elorriaga



**Hiztegitxo**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>aditu</b> entzun, ulertu	«Bigarrenez <b>adituko</b> dute gaur, baina patxada handiagoz orain.»	63
<b>ahots goran</b> ozenki, tonu altuan	«...eta bere buruarekin hitz egiten hastez zela, <b>ahots goran</b> baina ez oso ozen.»	36
<b>albino</b> larruazal eta ile zurikoa	«...ez zuen gizon <b>albino</b> hura ezagutzen.»	132
<b>alkandora</b> atorra	«Bleulerrek <b>alkandora</b> arraroa dakar gaur.»	56
<b>ardura izan</b> axola izan	«Musonek pentsatu du <b>ardura</b> handirik ere <b>ez diola</b> , Mitrofan ez dela inor gaur egun, ezin diela ezer egin...»	104
<b>arindu</b> larritasuna kendu	« <b>Arindua</b> sentitu du Datosek, baina disimulatzen ahalegindu da.»	104
<b>arnasestu</b> arnas hartze larria	«...bainak Sorak ez zuela erantzuten, gora jarraitzen zuela, arin, <b>arnasestu</b> apur batekin batzuetan.»	52
<b>arrasto</b> aztarna, seinalea	«Hori pentsatu behar du hamabi egun falta direlako uda amaitzeko eta ez dutelako Soraren <b>arrastorik</b> ere.»	194
<b>arteztu</b> zuzendu	«Marko batetik hauts apur bat kendu zuen gero eta okertuta zegoen koadro bat <b>artezten</b> ahalegindu zen.»	121
<b>askozaz -ago</b> hainbat / anitez -ago,	«Berririo piztu duenean <b>askozaz serioago</b> daude guztiak...»	89
<b>asti</b> denbora	«Bleulerrek ez du alde egiteko <b>astirik</b> ere izan.»	104
<b>atezuan</b> tentsioan	«Bosgarrenean neska ilegorri bat ikusi dut trenetik jaisten, <b>atezuan</b> jarri da, baina berehala konturatu da gazteegia dela arreba izateko.»	18
<b>atsoa</b> adineko emakumea	«— Nola konplikatu? Ilegorriak hil du <b>atsoa</b> ... Argi dago, ezta, Henry?»	164
<b>atxilo</b> presoa	« <b>Atxiloaren</b> jarrera desegokia bada, beste hiru hilabetez luza daiteke zigorra.»	21
<b>bagoi</b> tren bateko orga	«Udan baino arazo handiagoak ditu orain <b>bagoietatik</b> ateratzen diren pertsona guztiei erreparatzeko.»	216
<b>bakan</b> eskasa, bakarra, urria	«Besteak ez du ia ezer ulertzen, hitz <b>bakan</b> batzuk baino ez...»	34
<b>barrundatu</b> aurrez ikusi, bihozkada izan	« <b>Barrundatu</b> du biharamunean hego-haizea ekarriko duela.»	36
<b>belaunburu</b> belaunaren konkorra	«Uste baino lasaiago zegoen Miss Albert. Begiak mugitu ere ez zituen ere egiten. Eskuak <b>belaunburuetan</b> .»	173
<b>belztuta</b> kolore beltza hartuta	«Hortzak jausten zaizkio, eta oraindik geratzen zaizkionak <b>belztuta</b> dauzka batzuk eta urratu txikiz besteak.»	48
<b>bere kautan</b> bere baitan	«Isildu egin da.Ematen du testuetako bat <b>bere kautan</b> irakurtzen ari dela.»	187
<b>besaulki</b> butaka	«Barrymore beste <b>besaulki</b> batean jesarri zen, Flechsigen aurrean.»	147
<b>besaurre</b> besoen beheko partea	«Gogoratzen du eskuak belaunburuetan zituela eta zauri txiki asko <b>besaurreetan</b> .»	200
<b>bigunduta</b> samurtuta	«Begiak <b>bigunduta</b> zituen, bisitariak behar bezala agurtu eta...»	136
<b>biharamun</b> hurrengo eguna	«Gogoratzen du desagertu egin zirela paperetan zeuden hamazazpi gizonezkoak <b>biharamunean</b> .»	48
<b>bitxi</b> arraroa, arrotza	«Zenkakiak oso modu <b>bitxian</b> ahoskatzen ditu Malok, beste guztia baino askozaz ozenago: BAT, BI, BOST...»	186



<b>borondate</b> gogoa, nahimena	«Iruditu zitzaiion <b>borondaterik</b> txarrenarekin etorri zitzaiola Mr Flechsig.»	157
<b>brastako</b> kolpetik, atoan	«Datosek gogoratzen du halako batean <b>brastakoan</b> kendu zuela Sorak besoa iturri azpitik.»	52
<b>burdinazko haga</b> lantza, astamakila	«Biltegitik <b>burdinazko haga</b> bat atera zuen, lau metrokoa.»	89
<b>damutu</b> damu izan, dolu izan	«Azken hori esan ez beste, <b>damutu</b> egin da Datos.»	80
<b>defizit</b> falta, gabezia	«Esan nahi dut ez daukala zentzumenaren inongo <b>defizitik</b> eta bere eskuek erabat normalak izateko ezaugarri guztiak dituztela.»	42
<b>deuseztatu</b> ezereztu, indargabetu	«...lehendik grabatuta daudenak <b>deuseztatu</b> edo administrazioan entregatu behar dira.»	38
<b>diplomazia</b> negoziatzeko artea	«Eta <b>diplomazia</b> ? Egia da hori ere?»	26
<b>diskurtso</b> hitzaldia	«Ez dute Bornasen <b>diskurtsoa</b> osorik ulertu, baina sumatzen dute ulertu dutenarekiin nahikoa dela entzuten jarraitzeko.»	209
<b>edadetu</b> adinekoa	«Andere <b>edadetu</b> batek zabaldu zion atea. Fliby bera ere oso gazte egokia zen eta behar bezala hartu zuen...»	156
<b>egurastu</b> aireztatu, bentilatu	«Miss Albetren aitari gela <b>egurastu</b> egin behar zela iruditu zitzaiion.»	177
<b>erauzi</b> atera, sustraitik	«Erre seinaleak ditu aurpegi osoan eta gorputz-adarretan. Lau atzazal <b>erauzi</b> dizkiote. Zazpi labankada ditu oin-zoletan.»	167
<b>ergel</b> buruarina, memeloa, inozoa	«Elur-gurdia esan dut, <b>ergela</b> , niri gogoak ematen didalako, eta inportanteagoa da nire borondatea uda bera baino.»	185
<b>erne</b> adi, argi	«Miss Albret bere adin berekoa zen, erizaina bera bezala, baina askozaz ere <b>erneagoa</b> .»	121
<b>erraina</b> (nuera)	«Mitrofanen erraina bizirik atera zuten, baina segundo batzutan hil zen.»	141
<b>erreparatu</b> lotsa, beldurra, zerbait egiteko	«... <b>erreparatu</b> eman dit bakarrik uzteak.»	23
<b>erretilu</b> bandeja	«Bere ondoan, <b>erretilu</b> txiki batean, sagar erre bi ditu.»	11
<b>errezel</b> gortina	«Bleurrek lepoa baino ez dio ikusten. Leihoak ez dauka <b>errezelik</b> .»	207
<b>errun</b> oilok arrautzak	«Orturen batean daudela –Musonek. Errun txostenak... Inoiz baino argiago dago orain...»	188
<b>esan ez beste</b> esanaz batera	«Azken hori <b>esan ez beste</b> , damutu egin da Datos.»	80
<b>estimatu</b> aintzat eduki	«Geografiak eta kronologiak ere ez; <b>estimatu</b> izan ditut, baina ez naute kezkatu.»	208
<b>estolda</b> ur zikinatarako hodi sistema	«Belauniko jarri zen errepide ertzean eta <b>estolda</b> batetik sartu zuen iman-harria.»	129
<b>estropezu egin</b> tupust egin, behaztopatu	«...edadeko gizon batek <b>estropezu egin</b> zuela euren ondoan eta lurrera jausteko puntuan egon zela.»	52
<b>eszisioa</b> zatiketa, banaketa	«Jakín dugu <b>eszisioa</b> egon dela Pazientzia batzarretan. Jakín dugu talde batek armak hartu nahi dituela.»	190
<b>gabardina</b> zira	«Gogoratzen du gau osoa egin zutela agente berriek horrela, zutunik, <b>gabardina</b> laburra bera ere kendu gabe.»	96
<b>garondo</b> lepoaren atzeko alde, kokota	«“Erraldoia zen, lodia, <b>garondoa</b> eta sudurra gorri zituen eta ahotsa tronboiarena.»	185



<b>gogo txartuta egon</b> larrituta egon, gaizki sentituta	«Mrs. Blockton <b>gogo txartuta zegoela</b> ematen zuen; esaldi batzuk ohi baino ozenago esaten zituen eta beste batzuk oso motel.»	137
<b>gortina</b> errezela	«Ikusi duzu ere hau? Ikusi dituzu leihoetako <b>gortinak</b> ? Nola sartuko dituzte gortina hauek kartzelara?»	136
<b>haize-bolada</b> haizealdia	« <b>Haize-bolada</b> gogorra pasatu da orduan hamazazpigarren teilatutik.»	24
<b>hala-moduz</b> hala-hola, erdipurdi	«Orain arte ezin izan diote protesirik jarri, hortz-erroak ere <b>hala-moduz</b> dituelako.»	48
<b>halaber</b> era berean, orobat	«Argi dago, <b>halaber</b> , komunitatearen giroa narrasten dutela.»	53
<b>harlauza</b> harri zabala	«Mr. Uterson ... kalean zegoen geldirik, oso geldirik, espaloiaeren erdian, aurrera begira, betiko <b>harlauzaren</b> gainean.»	109
<b>hazgura</b> hazgalea, hazka egiteko gogoia	«Ez daki, zehatz, belarriaren zein puntutan daukan azkura eta belarri osoan <b>egin du hazka</b> .»	28
<b>hazka egin</b> arraskatu, igurtzi gogorra	«Ez daki, zehatz, belarriaren zein puntutan daukan azkura eta belarri osoan <b>egin du hazka</b> .»	28
<b>herren egin</b> gaizki ibili, hanka arazoagatik	«Nik Gladysi lagundu nion egongelaraino. <b>Herren egiten</b> zuen.»	157
<b>honezkero</b> gagoeneko, ordu honetarako	«Nahiko gau iluna da eta pentsatu du <b>honezkero</b> ez dela etorriko.»	14
<b>igarri</b> nabaritu, ezagun izan	«Desagertu bi ditu orain, Musone eta arreba. Geltokian ere <b>igartzen</b> da iraila dela.»	197
<b>ikazkin</b> egur-ikatza egiten duena	« <b>Ikazkinak</b> Bleulerren parera heldu direnerako, aspaldi zeuden Phineas, Datos eta Musone desagertuta.»	33
<b>ilegorri</b> kaskagorria	«—Nola konplikatu? <b>Ilegorriak</b> hil du atsoa... Argi dago, ezta, Henry?»	164
<b>imintzio</b> keinua, gestua	«Halako batean <b>imintzioa</b> egin du baina azken galdera egiten hasi da.»	26
<b>inertzia</b> berezko mugimendu-indarra	«Iruditzen zaio <b>inertziaz</b> jarraitzen duela teiltura etortzen. Pentsatu du ez dela askozaz gehiagotan etorriko.»	216
<b>inozo</b> ergela, leloa	«Baina herriko askok gogoratzen du ikazkinak ez zirela <b>inozoak</b> eta guztiz identifikatuta zeukatela 107. teiltua...»	36
<b>iradoki</b> sujeritu, aditzera eman	«Mitrofanek <b>iradoki</b> zuen Miser bera, semeak eta langileak desagertu eta gero, administrazioak hartu beharko duela Miser armadorearen lantegia.»	98
<b>istilu</b> iskanbila, zalaparta	« <b>Istilu</b> txiki bat ikusi dute tren-geltokian...»	55
<b>itxuragabetu</b> desitxuratu	«Aurpegia <b>itxuragabetuta</b> dauka. Ematen du oraindik ezin izan duela irentsi Sorari buruz entzun duena.»	212
<b>izter</b> zangoaren zatia	«Phineasek bere eskumako <b>izterrari</b> eman dio kolpea orain, min hartzeko moduan.»	194
<b>jasan</b> pairatu, sufritu	«Batzarkide batek ezin izan ditu teknikak <b>jasan</b> eta berrogeigarren saileko ortuetara eraman behar izan dute.»	192
<b>kanposantu</b> hilerria	«Gorpuak <b>kanposantuko</b> langileei bidali behar dizkiegu orain.»	168
<b>kisketa</b> atea ixteko langatxoia	«Gogoratzen du <b>kisketa</b> entzun zuela handik gutxira eta ahots lodi bat.»	64
<b>konorte</b> kordea	«Ezer baino lehen <b>konortea</b> galarazi behar zaio gaixoari...»	65
<b>kordea galdu</b> konortea galdu	«Oso azkar hitz egin zien, garrasi egiteko indar gutxi zeukan, baina garrasi egin zuen. <b>Kordea</b> galdu zuen gero.»	142



<b>korridore</b> pasilloa, karrajua	«Gogoratzen du argi batzuk pizten zituela batzuetan, <b>korridorekoa</b> eta egongelakoa batez ere...»	87
<b>kurloi</b> txolarre, etxetxori	«Bederatzi <b>kurloi</b> daude hamazazpigarren teilatuan.»	83
<b>labar</b> itsas ertzeko amildegi ertza	«...ibilaldi luze samarra egin zuen lehenengo, herritik eta herri inguruetatik, <b>labarretik</b> batez ere...»	89
<b>lantzean behin</b> aldizka, noizean behin	«Musonek, <b>lantzean behin</b> , hemeretzigarren teiltatura joateko ohitura hartu du.»	23
<b>lehergailu</b> bonba	«Otsailaren 5ean <b>lehergailu</b> bat jarri zuten Mitrofanen auto ofizialean.»	141
<b>lerratu</b> irristatu, pasatu	«...esperientziak esaten digu grabazioak politikara <b>lerra</b> daitezkeela uste baino errazago...»	37
<b>loba</b> iloba	«— Zer jauna? — Bere <b>lobaren</b> tratua... ikaslearekin...»	150
<b>lobotomia</b> garunean ebakuntza	«...ezinbestekoa dela jarrera oldarkorra agertzen duten atxiloei <b>lobotomia</b> transorbitala aplikatzea.»	67
<b>masailekoa eman</b> belarrondokoa, zaplastekoa	«...Magdari denetarik egin zion baso txikian, ortuetara laguntzeko agindua eman zuen, <b>masailekoa eman</b> zion Wojciechi, kortara Joan zen...»	185
<b>miatu</b> arakatu, ikuskatu	«Jendeak gogoratzen du, Lubos familiako amak esanda, etxeko gela guztiak <b>miatu</b> zituztela.»	96
<b>miniaturazko</b> dimentsio txikikoa	«Esan du urak garbitzeko biltegi bat jarri dutela ortuak zeuden lekuan, biltegi barregarri bat, <b>miniaturazkoa</b> .»	193
<b>motel</b> geldo	«Berandu dator Musone. Inoizko <b>motelen</b> heldu da.»	192
<b>narrasti</b> herrestaria	« <b>Narrastiak</b> pauso bat eman zuen aurrerantz eta bi atzerantz.»	111
<b>nazkatuta</b> gogaituta	«Esan du apur bat <b>nazkatuta</b> dagoela.»	193
<b>oin-zola</b> oinaren azpiko partea	«Erre seinaleak ditu aurpegi osoan eta gorputz-adarretan. Lau atzazal erauzi dizkiote. Zazpi labankada ditu <b>oin-zoletan</b> .»	167
<b>oldarkor</b> erasokorra, bortitza	«...ezinbestekoa dela jarrera <b>oldarkorra</b> agertzen duten atxiloei lobotomia transorbitala aplikatzea.»	67
<b>ortu</b> baratzea, solo txikia	«...mendiaetan, <b>ortuetan</b> edo soro handietan aurkitzen dira hildakoak normalean.»	59
<b>ozen</b> hots handiz, ahotsa jasoz	«Beldurrek, gainera, sekula ez du <b>ozen</b> hitz egiten, aitaren eraginez seguruenik.»	14
<b>patrika</b> poltsikoa, sakela	«Ez nekien oso ondo zergatik baina diru asko hartu zuen <b>patrikarako</b> .»	165
<b>patxada</b> lasaitasuna	«Bigarrenez adituko dute gaur, baina <b>patxada</b> handiagoz orain.»	63
<b>petril</b> hesia edo baranda-modukoa	«Bleulerren etxetik irten eta harrizko <b>petril</b> batean eseri da Phineas, trengeltokiari begira...»	213
<b>psikotiko</b> haluzinazioak dituen	«Horiek dira <b>psikotiko</b> askoren pentsamendu normalak; Douglasen kasua ez da berez arraroa...»	210
<b>sakon</b> azaletik barrura	«...baina hiru-lau zulo <b>sakon</b> ere bai.»	73
<b>sama</b> lepoa, eztarria	«Labana txiki baten zatia zekarren <b>saman</b> sartuta.»	73
<b>sastar</b> zaborra, zakarra	«...eta hainbat desagerrarazi zituela, <b>sastar</b> azpian, ortuetan, kare bizitan asko...»	87



<b>sastraka</b> sasitza, landare arantzadun piloa	«...tximiniarekin batzen den lekuan, nahasia da, <b>sastraka</b> da.»	24
<b>segituan</b> berehala, atoan	«Bigarren tren bat heldu da <b>segituan</b> . Bigarren tren horren atea irekitzeko arazoak dituzte.»	182
<b>sekula</b> inoiz ez, egundo	« <b>Sekula</b> aditu ez duten grabazio modua da: Malo doktoreak testuak irakurtzen ditu...»	184
<b>sinesgogor</b> sinetsi ezinik	«Mr. Mallowanek Henry Uttersoni begiratu zion <b>sinesgogor</b> .»	124
<b>solas</b> hizketa, mintzaldi, jardunaldi	«Lagunen <b>solasari</b> heldu nahi izan dio berriro, baina hizketaldi luze baten erdian daude.»	13
<b>sosegatu</b> lasaia, patxadatsua	«...hori baino askozaz pertsona <b>sosegatuagoa</b> da.»	76
<b>sosegu</b> baretasuna, lasaitasuna	«...eta <b>sosegu</b> falta nabarmena dauka.»	34
<b>susmatu</b> errezelatu	«Laurak ari dira orain <b>susmatzen</b> Londreseko grabazioek ez dutela ezertarako balio, ez Errun txostenak bilatzeko, ez Sorari buruz ezer jakiteko.»	190
<b>tamalez</b> zoritarrez, damurik	«Ez da, <b>tamalez</b> , lan mekanikorik sinpleena egiteko ere kapaz izaten.»	72
<b>tematu</b> setatu, egoskortu	«— Apur bat tristea, ezta? — <b>tematu</b> zen Mr. Mallowan.»	110
<b>topatu</b> aurkitu, kausitu, idoro	«Phineasek esan dio oso zaila iruditzen zaiola ortua <b>topatzea</b> eta batez ere txostenak topatzea, oso zaila.»	191
<b>txori andana</b> txori piloa, multzoa	« <b>Txori andana</b> kla-kla-kla hegaldatau eta kla-kla-kla hogeita hirugarren teilatutik.»	75
<b>ubeldura</b> odolbildua	«... <b>ubeldura</b> handi samar bat zeukan L-k ezkerreko begian...»	73
<b>ugari</b> erruz, asko	«Jende <b>ugari</b> irten da bagoietatik eta asko kostatu zaio Phineasi guztiei erreparatzea.»	206
<b>ugertu</b> herdoildua	«...lau gauza zekartzan itsatsita: euritako baten makiletako bat, iltze bi eta burdin zati arraro bat ia osorik <b>ugertua</b> .»	129
<b>uzkur</b> kikilduta, bere barnera bilduta	«Erabat <b>uzkur</b> zetorren miss Podgers.»	121
<b>yarda</b> luzera-unitate anglosaxoia	«Ezkerretara, bidetik berrogei bat <b>yarda</b> aurrerago, Erloju Etxea ikusten ari zen.»	129
<b>zanpatu</b> zapaldu, lehertu	«Bigarren sagarrarekin burdinbide erdian asmatu du: eskumako errailean <b>zanpatuta</b> geratu da bigarren sagarra...»	106
<b>zantzu</b> seinalea, aztarna	«Labankada <b>zantzu</b> ugari zuen sabelalde eta bularrean...»	73
<b>zarpail</b> zatarra, itsusia	«Barre <b>zarpaila</b> egin du berriz eta beste ikazkinari begiratu dio.»	34
<b>zirkin egin ez</b> mugimendu txikiena ere ez egin	« <b>Zirkinik</b> txikiena ere <b>ez</b> zuen Mr. Uttersonnek egiten hala ere, euritakoa eskuan, aurrera begira, argala...»	109
<b>zotinka</b> espasmoka, diafragmak eraginda	«Pertsona bat <b>zotinka</b> ari da.»	12
<b>zozotu</b> tontotu, ergeldu	«Ikusi duzu klubeko jendea? Gure adinekoak erdi <b>zozotuta</b> daude guztiak...»	111
<b>zutundu</b> zutitu, tentetu	«Bleuler teilatutik <b>zutundu</b> eta etxera alde egin du.»	104
<b>zutundu</b> altxatu, tentetu	«Drava <b>zutundu</b> eta mugitzen hasi da. Badoala pentsatu dute...»	198